



Bere aurrean jarri  
eta barrenean ageri.  
**Ezetz igarri!**

# Musika, uztaien erritmoan





ERREPORTAJEA

'Tangentziak' tailerra

# Uztaiak, musikaren lagún

Tamaina askotako uztaiekin jolastuz, tangentziak zer diren ikasi, eta egitura geometriko konplexuak eraiki dituzte hainbat hurrek Arantzazun. Donostiako Musika Hamabostaldiak haurrentzako egitarauaren barruan antolatu du tailerra, Maushaus ideia laborategiaren eskutik.

Testua: **Julen Aperribai**

**M**usika klasikoaren zale direnentzat garai oparoa izaten da abuztua. Donostiako Musika Hamabostaldiak goi mailako musikariak eramaten ditu Gipuzkoako hiriburura. Egitaraua, kontzertuek ez ezik, bestelako jarduerak ere betetzen dute, eta horien artean badira haurrentzakoak ere. Haurren Hamabostaldiaren barruan, hilabete osoan izan dira tailerrak eta ipuin musikatuak. Eta ez Donostian bakarrik, beste inguru batzuk ere busti baititu hamabostaldiak. Oñatiko (Gipuzkoa) Arantzazu auzoan, santutegiaren goialdean dagoen Gandiaga eraikinean, Tangentziak tailerra egin zuten orain gutxi, besteak beste.

Artearen eta arkitekturaren inguruko Maushaus ideia laborate-

giak dinamizatu zuen tailerra, hamabostaldiko antolatzaileen eskariz. Hango kideek geometriaren eta musikaren arteko harremana zein estua izan daitekeen erakutsi zieten haurrei, haiek azalpenak adi-adi entzuten zizkieten bitartean. «Marrak zuzenak okertu eta kurba bihurtzen direnean, eta kurba horrek beste zerbait ukitzen duenean sortzen dira tangentsiak», Judith Blazquez Maushauseko kidearen hitzetan. Kontzeptu horretatik abiatuta, hiru dimentsioko eskultura eraiki zuen Manu Muniategiandikoetxeak, eta Musika Hamabostaldiko kartelean txertatu zuen. Hark egin bezala, tangentsiak sortu, eta elkarrekin harremanetan jarri zituzten Arantzazun elkartu ziren arkitekto gazteek.

Zenbait kontzeptu geometriko ondo ulertu beharra zegoen, ezertan hasi baino lehen, eta, horretarako, jolasean aritu ziren tamaina desberdinetako uztaiekin. Bi ilartan jarrita uztaia elkarri pasatuz, lehenik, besoan inguruan bueltaka ibiliz, ondoren, eta uztaiak elkarren segidan jarri, eta haien barrutik igaroz, azkenik. Tamaina desberdinetako zazpi uztaiz zituzten eskura, eta, hain zuzen ere, zazpi dira pentagramako notak ere. Abestiak sortzeko notak elkarrekin lotu behar diren bezala, uztaiak elkarrekin harremanetan jartzean, tangentsiak sortzen dira. Paralelismo hori irudikatu zuten. Ez uztaiekin soilik, baita tailerrak iraun bitartean lagun izan zituzten musika klasikoko piezekin ere.

Uztaiekin lehen kontaktua izan eta gero, oinetakoak erantzi, eta lurrean zegoen paper zuri baten gainean elkartu ziren. Han, tangentsiak irudikatu zituzten. Uztaiak erabiliz, zirkunferentziak marraztu zituzten zuriaren gainean. Jarraian, marraztutako borobilen kurben gainean ibiltzen hasi ziren. Bi pertsonak puntu berean, ukipen puntuan, topo egiten zutenean elkarri bostekoa ematea, hori zen jolasa. Hala, ukipen puntuak, lurreko ma-



● Tangentsiak zer diren ikusi ahal izan zuten haurrek, baina, batez ere, uztaiekin jolastuz gozatu zuten gehien. Uztaiak dantzan jarri zuten tailerra, eta amaitu, berriz, uztaien laguntzaz marraztutako borobilak koloreztatuz. JAIKZI FONTANEDA / ARGAZKI PRESS

razkian ez ezik, euren artean ere badaudela ikusi ahal izan zuten. Ez zen leku handirik paper zuriaren gainean denentzat, eta leku askotan topo egin zuten.

Oinarrizko nozioak barneratuta, egitura geometriko lauei bolumena eman zieten haurrek. Taldeka banatuta jardun zuten, uztaiak elkarren barruan sartuz, uztaiz txikienetik hasi eta handieneraino. Ukipen puntuetan uztaiak elkarrekin lotu zituzten, aska ez zitezen. Ondoren, eraikitako egiturak sabaitik zintzilik jarri zituzten, edozein mugetako eskulturak balira bezala.

### Handikoa, txikira

Ez zen hor amaitu tailerra. Gela

handian egindako prozesu bera egin zuten alboko gela txikian, amaierako zenbait pauso aldatuta. Tailerreko gidariak orri zuri bana eman zieten haurrei, eta, zirkunferentziaz lagunduta, tangentsiak marrazteari ekin zieten haiek. Jarraian, norberak aukeratutako kolorearekin, zirkuluen barrua koloreztatu zuten, tenpera erabiliz. Oroigarri gisa, marrazkia etxera eramane zuten haurrek.

Gela handian ez bezala, gela txikian banaka aritu ziren lanean umeak. Aurreko jolasak elkarrekin egin bazituzten ere, barneratutakoa desberdin irudikatu zuen paperarean eurretako bakoitzak. Horixe da, hain zuzen, tailerraren alde positibo nagusietako bat, Blazque-

zentzat: «Asko gustatzen zait ikustea zein den haur bakoitzak duen ikuspuntua, jolas guztiak egin eta gero. Hasieran, denek gauza bera egiten dute, baina paper txikiaren aurrean jartzen direnean ikus daiteke nola haietako bakoitzak gauza desberdin bat duen buruan».

Haurrek tangentsien jokoaren eta musikaren arteko harremana egin dezaten saiatzeko badira ere, Maushauseko kide Anabel Varonak onartu zuen musikak ez diela guztiei berdin eragiten. «Batzuk egiten dute nolabaiteko lotura, baina gehienak aztoratu egiten dituzte musikak. Asko dantzan hasten dira. Estimulatu egiten dituzte musikak; horretarako, behintzat, balio du», azaldu zuen.